

Okabehea (-a) etxebizitza

Aldacrak: Oka / Oka Landaetxea
Ahozkoa: Óka / Óka bekúe



43° 11' 36"

2° 34' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Arestian aipatu bezala, ia aipamenik ez dugu aurkitu baserri-errota honi buruz, XX. mendeko azken erroldan izan ezik, hots, *Ocabecoa* (1967, BUA, CE). Dena den, egun landetxe den errota zaharberritu honen gaineko informazioa jasotzen da haren web orrian (www.okalandaetxea.com).

Bertako datuen arabera, 1550etik 1910era arte, eraikinak errota gisa funtzionatu zuen. XIX. mende erdialdera, uhaldi batek eraikina behera bota zuen, eta ia bere osotasunean berreraikia zuten. XX. mende hasieran, industrializa-

zioaren eraginez, errota zaharra erabiltzeari utzi zitzaion, eta argindarra sortzeko makina ezarri zuten bertan, Alemaniatik ekarritakoa. Uraren indarrekin, elektrizitatea produzitzeari ekin zitzaion, ondoren Berrizko udalari eta ondokoei eta inguruko baserritarrei saltzeko.

Okagoikoa (**Ikus Okagoikoa**) baserriarekin gertatzen den bezala, berriztarrek *Óka* moduan ezagutzen dute hau ere, eta *Óka* bekúe ahozko forma erabiltzen dute beste eraikinetik bereizteko.

toponimia

Arestian aipatu dugun moduan (**Ikus Okagoikoa**) Oka toponimoa oso arrunta da Euskal Herrian eta inguruan eta "arroila" esan nahi omen zuen. Okagoikoarekin alderatuta, kasu honetan izenaren bigarren osagaiak beheko aldekoa dela esaten digu.



Berriz Iruditan / T. Angoitia

Errota eta zentral hidroelektriko izandakoaren lekuan altxatutako eraikin multzoa da, gaur egun landetxe bihurtu dena. Hiru bolumenek osatzen dute. Funtzioari eta parajeari egokitzen zaizkio guztiz, erreka ondoan eta aldats handian, erripan, azken finean, erabat integratuta dagoelarik.

1850eko uhaldiak eraikina erabat hondatu zuen, eta gaur ikusten duguna gero berreraikitakoa da. Hala ere, bere horretan mantentzen dira oraindik ere, antapara, estolda eta ondorengo zentralaren makineria ere, besteak beste.

Eraikinik handiena eta trinkoena gorago dagoena da. Harlangaitzez burutu zuten, zurezko dintelez hornitutako baoak ditu eta lau isurkiko teilatua. Erdikoak, berriz, orduko etxeen egitura du. Bi isurkiko teilatua dauka, eta harlanduz eginda ditu kantalak eta baoen ertzak. Solairu nagusian hiru leiho dauzka, erdikoa luzea izanik, eta ganbaran, beste horrenbeste ditu, teilatuaren formari egokituta. Azkenik, hirugarrena eraikinik txikiena da, eta harrera-leku funtzioa egiten du.